

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatua, nitxo osatutako merkatua da. Hau da, merkatu oso zehatz, berezi eta asegabe baten beharrak asetzen dituena. Gure kasuan, gure bezeroak Mendizabala institutuko zuzendaria eta zuzendaritza taldeko langileak dira. Gure bezeroek badute ezaugarri bat komunean: guk bideoa egin dugun institutuan lan egiten dutela eta guk eskainiko diegun zerbitzua Ikastetxeko ikasle eta langileen ongizaterako dela.

SUBIDEn publiko objektiboa, prebentzio eta ebakuazio-plan bat behar duten ikastetxeetako zuzendariak, eta ikastetxeetan larrialdi-egoeretan segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzeaz arduratzen direnak dira.

Geografiari begira, gure produktua Euskal Herri osoan eskainiko dugu. Zehatzago Hiriburuetan, hau da, Vitoria-Gasteizen, Donostian, Bilbon eta Iruñean. Biztanle eta ikastetxe gehiago daudelako.

